


# Liburuak

KRITIKA

*Ipuinak.*  
Gabriel Aresti (X. Monasterioren edizioa).  
Ikeder, 2007. 69 orrialde. 11 euro.



Hemeroteka

Aritz Galarraga

## Ta modernoak “basque speaking”

MARTIN UGALDE izan omen zen ipuina literatur genero moderno gisa landu zuen lehen euskal idazlea. 1961era goaz, orduantxe argitaratu baitzuen Ugaldek, Venezuelan, bere euskarazko lehen ipuin bilduma: *Iltzalleak* (1985eko euskara batuko edizioaz geroztik, *Hiltzaileak*). 36ko gerran eta ondorengo erresistentzian giroturiko ipuinak dira euskarazko lehen ipuin bilduma modernoa izendatu dena osatzen dutenak. Ordura arte ipuina kontakizun erraz, folkloriko eta irrigarria izaten zen, eta Ugalderenekin iskin egin zioten kostunbrismoaren eragin zuzenari. Literarioki balioa aitortzen diete Xabier Mendiguren eta Koldo Izagirrek. Ibon Sarasolak, berezko balio literarioa baino, gerraondoko literaturaren jarraipen, literaturaren biziraupenaren balioa eman zion, oro har, erbesteko literaturari. Literarioa eta jarraipenarena, biak iruditu zaizkit bateragarri Ugalderenak irakurri ondorenean.

Baina, lehen euskal ipuin modernoek ari ginela, hara non topo egiten dudun liburuxka batekin, apenas 69 orrialde, *Ipuinak* epigrafea azalean, Gabriel Aresti delako batek sinatutako sei ipuin. Eta gogoratzen dut Susa argitaletxeak egin zuen lan eskerga hartan, Gabriel Arestiren lan konpletoetan, badagoela *Narratiba* izeneko ale bat, eta hemen ere bildu zirela sei ipuinok (gehi narrazio labur batzuk, gehi nobela bat). Eta 86ra arte liburuan jaso ez baziren ere, gogoratzen dut *Egan* aldizkarian argitaratu zirela seiak, lehena 1957an, azkena 1962an. Eta kontua da ipuin horiek ere erabat direla moderno, ez inolaz ere erraz, folkloriko eta irrigarri, nahiz eta barrerako tartea ere uzten duten (*Olerkaria* autoironikoak, esaterako). Hiria agertzen da, Bilbo, arazo sozialak, alde ekonomikoak; gaiak dira garaikoak, dirua, lana, giza kondizioa, sexualitatea, idazletza; euskara bera, batua sortu aurreko batua dugu.

*Ipuinak* honekin kontuz, baina: Xabier Monasteriok eskua sartu du, beharrik gabe, asmo onez, pentsatzen dut, ipuinak moldatuta eta erraztuta eskaintzen dira, baina egungo irakurleak arazorik ez du jatorrizkoekin, zertarako ezer ukitzen ibili beraz. Hobe da, hortaz, lehen aipatu dugun Susako liburura jotzea edo, nahiago bada, *Egan* aldizkarira bertara, edizio digital txukunean aurkitzen da [armiarma.com](http://armiarma.com) gunean.

Ugalderenak edo Arestirenak, hau ez da noski konpetizioa, lehena nor izan zen ez da sobera garrantzitsua. Bai, ordea, jakitea garai bertsuari kezka bertsuari erantzun bertsuak ematen saiatu zela idazle bat baino gehiago, ipuina genero moderno eta, ondorioz, garaikide kontsideratzeraino. ■

## ‘Gose jokoak’ trilogiaren amaiera

Suzanne Collinsen *Gose jokoak* trilogiak arrakasta handia izan zuen AEBetan lehen liburua 2008an publikatu zenetik. Hamaika hizkuntzataraz itzuli dute geroztik eta gurean Alberdania eta Erein arduratu dira euskaraz argitaratzeaz. *Gose jokoak* eta *Dena sutan* lehen bi liburuen ondotik, hemen da trilogia itxiko duen liburua, *Eskinoso isekaria*.



*Eskinoso isekaria.*  
Suzanne Collins.  
Alberdania-Erein.  
415 orrialde.  
20 euro.

Publiko gazte-helduarentzat idatzitako distopia honen protagonistak, Katnisek, tiraniaren kontrako matxinada bururaino eramanez ala ez erabaki

beharko du azken liburu honetan. Horretarako, mesfidantzak eta amorruek alde batera uzten ikasi beharko du ordea, ezinbestean. ■

## ‘Multibidaiariak’ saileko lehen liburua

Fernando Morillo idazle azpeitiarrak *Multibidaiariak* izeneko istorio sortari ekin dio. Denboraren eta espazioaren hesiak gaindituz bidaia fantastikoak egingo dituzte protagonistek, gizateriaren historiaren aldi eta leku ugarietara. Eta noski, bidaia arruntetan gertatzen den moduan, espazio-denborak zeharkatuz egindako bidaia hauetan ere denak ez dira lagunak izango. Saileko lehen liburua Greziara eramango gaitu. Frank Millerren *300* nobela grafikoaren estetikan oinarrituta –ez da alferrik aipatzen Termopiletako bataila– Morilloren testuak eta Iñaki G. Holgadoaren ilustrazioek abenturaz beteriko narrazioa osatu dute. Hurrengo geltokia, Japonia. ■



*Lehoien dantza.*  
Fernando Morillo.  
Elkar.  
188 orrialde.  
16,25 euro.